

Arrasate

P R E S S

1997ko
uztailak 11
371. zenb.



Zahartzaroa lagun artean

Iturbide egoitza

KULTURA: MANEX AGIRRE • 30 GALDERATAN: LUPE NAVARRO
IRITZIA: PATXI AGIRREBEÑA • IKUSPEGIA: IKER BARANDIARAN

Burtsan
inbertitu
eta gustura
geratzen
ez bazara
dirua
itzuliko
dizugu.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun zuzena

Rock-a herrian

Gaur egun, Arrasateko rock-ak osasun ona dauka. Nolabait kontsolidatu eta beraien lekutxo hartzea lortu duten estilo desberdineko talde dexente dago; gehienek, emanaldietarako ganorazko errepertorioak prestatuta dituzte eta zenbaitzuk maketak eta diskoak ere kaleratu dituzte. Gainera horietako batzuk, gaur egungo panorama musikal hain saturatuan oso adierazgarria den zerbait lortu dute. Kontzertuak bilatzen beraiek ibili beharrean, kanpotik



Iker Barandiaran

deuten. Kontzertuak egiteko eta beraiekin gozatzeko aukera ere sarri egon da, bereziki Gaztetxean baina baita azken boladan noizbehinka taberna batzuetan ere. Entsaizteko lokalak ere badaude; eta *Shot!* grabaketa-estudioak esperientzia hartu du dagoeneko, berau herrian egoteak, nolabait herriko taldeei beraien abestiak plazaratzea eskurago jartzen dielarik. Gainera, bertakoek diskete bat sortu berri dute *Où Records*, lehen erreferentziatzat RIP talde esanguratsuen

bertsioen diskoa atera dutelarik. Udaren ondoren lan berriak aterako dituzte.

ATBn aspaldiko partez, musika saio interesgarri bat agertu zaigu, batzuentzat agian metaleroegia bada ere, eta

oso gertu daukagun Bergaran, *Jam* aretoarekin proiektio internazionalako kontzertuak ikusteko aukera dago, askotan prezio garestietan bada ere.

Guzti honek, herria musikalki aberastu edo betetzen duela erakusten badigu ere, badaude puntu batzuk hobeto zainduz gero, epe motz eta luzean oso onuragarriak izan daitezkeenak. Batetik, musika talde kopurua eta musika munduan inplikaturata edo kezkatuta dagoen guztia kontuan hartuta, kanpotik datozen taldeak, izen handirik ez dutenak, ikusi eta entzuteko dagoen interes eta jakinmin urria salatzea. Dagoen azpiegitura eta eskaintza hobeto zaindu eta mimatu daitekeelako, eta kanpoko taldeengandik ere ikasi daitekeelako. Bestetik, gero eta musika talde gehiago dagoenez eta aspalditik udaletxeak utzitako depositoko lokalak saturatuegiak daudenez, honek konponbide bat bilatu beharko luke, alokairuetan ordaintzen dena ez baita txantxetako izaten.

“Badaude puntu batzuk hobeto zainduz gero, epe motz eta luzean oso onuragarriak izan daitezkeenak”



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzaileak: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 77 05 65. Faxes: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Behar-do Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Ibaro Zubillaga, Maider Egues, Marian Porcel. **Publizitateak:** Kaitin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26). **Diseinua:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ibaro Artoia, Bixente Azkarate, Joxerra Aguirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orbeogoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Unibarren, Fidel Berezibar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agornia, Jose Mari Astigaraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmelo Perez, Kofi, Jon Ozaeta, Birginia Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati). **ARRASATE PRESS**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana.



Arrasateko Udaleren laguntzaz



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntzaz



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz

371. zenbaki honetan

1997ko uztailaren 11n

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen	11/13	Kulturaren txokoa	21
Irakurlea idazle	6	Txutxumutxuak	14	Azoka plaza	22/23
Inkesta.....	7	Asteko gaia	15/17	Denborapasak	24
Euren ikuspuntutik	8	Kirolak jokoan.....	18/19	Ikusi eta entzun	25

Ikuspegia

Iker Barandiaran **3**

Euren ikuspuntutik

Patxi Agirrebeña **8**

Kirolak jokoan

Saskibaloit taldea **18**

Kulturaren txokoa

Manex Agirre **20**

Asteko gaia

Iturbide egoitza.

zahartzaroa

lagun artean **15/17**

Iturbide egoitzan gaur egun 98 lagun daude eta 34 langile. Bertako bizitza buruz gehiago jakiteko Consuelo, Garbiñe, Manuel eta Avelinorekin izan gara.



11

ostirala

■ ZINEA
Zeheztu gabeko filmea. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ ITURBIDE EGOITZAKO UDAKO EKINTZAK
Txikitxu-~~g~~rostaitz dantza taldearen emanaldia Iturbide egoitzan arratsaldeko 6etan.

■ EKEKEI ANTZERKI TALDEA
Ekekei taldearen *Fuman-txu Gernikako arbolaren gerizpean* antzezlana gaueko 10.30etan Herriko plazan.

12

larunbata

■ ZINEA
Airbag. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan. Zuzendaria: Juanma Bajo Ulloa.

■ ARRANTZA LEHIAKETA ARAMAION
Arratsaldeko 3etan arrantza lehiaketa hasiko da. 8etan sari banaketa.

13

igandea

■ ZINEA
Airbag. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan. Zuzendaria: Juanma Bajo Ulloa.

■ ZIKLOTURISTEN IRTEERA
Ibilbidea: Arrasate, Urretxu, Azkoitia, Azkarate gaina, Elgoibar, San Migel gaina, Markina, Trabakua gaina, Elorrio, Kanpazar gaina eta Arrasate. Guztira 108 kilometro. Irteera goizeko 8etan Monterrondik.

■ SAN KRISTOBALGO JIAK
Eguerdiko 12etan San Kristobalگو Ermitan meza. 1etan dantzariak eta ondoren Ines eta Naiararekin vermouthe dantza. Arratsaldeko 5.30etan Ines eta Naiara taldearekin erromeria eta ordu berean bolo txapelketa. Ohitura den bezala otartekoak eta salda izango da.

14

astelehena

■ ZINEA
Airbag. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ ABIALDIAN 97
Abialdian 97 martxaren etorrera arratsaldeko 7etan. Ongietorria Muxibarren. 7.30etan ekitaldi politikoa txalapartariekin eta trikitilariarekin Herriko plazan. 9etan herri afaria plazan bertan. Txartelak Irati tabernan salgai.

17

osteguna

■ ZINEA
Solo los tontos se enamoran. Alai zinema 7etan eta 9.30etan.

■ ZINE KLUBA
La camioneta gaueko 10.30etan Monterrongo parkean. Sarrera 400 pezeta eta gazte txartelarekin 350 pezeta. Eguraldi txarra eginez gero, Amaia antzokian.

■ ITURBIDE EGOITZAKO UDAKO EKINTZAK
Elkorobarrutia taldearen emanaldia arratsaldeko 6etan egoitzan.

15

asteartea

■ ZINEA
Airbag. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ ABIALDIAN 97
Martxaren irteera, goizeko 10etan Arbolapetatik.

• ARTEA •
Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak
Ferrerias, 11 Tel.: 77 10 95
ARRASATE

HIES
EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.
Tel.: 79 26 99



beinke



HAURTOKO
Arrasate Pasealekua 4,
Tel.: 79 14 90
ARRASATE

■ MUGARIK GABEKO GAZTEAK VIII. ARGAZKI LEHIAKETA

Parte hartzeko bi maila:
a) Deba garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak. b) 19-35 urteko edozein. Gaia: mugarik gabeko gazteak. Bi modalitate koloretan eta zuribeltzean. Lanen berezitasunak: a mailan librea eta b mailan gutxienez 18X24 zm eta gehienez 30X40 zm. Argazki guztiak lema batez sinatu behar dira. Horiekin batera sobre itxi bat, azalean lema eta maila aipatuz eta barruan egilearen nortasun agiria- ren fotokopia, helbidea eta telefonoa. Bakoitzak gehienez hiru argazki aurkez ditzake. Helbidea: Udaleko Gazte Zerbitzua, Udaletxea, 20.500 Arrasate. Lanak aurkezteko epea urriaren 10ean amaituko da.

■ BESAIDEREN IRTEERA

Besaideko Gazte Ekintza taldeak Pirineoetara irteera antolatu du uztailearen 21etik 24era. Izenematea uztailearen 14an eta 15ean Besaide- ren egoitzan.


■ ABIALDIAN 97 ERAKUSKETA

Uztailearen 12an, 13an eta 14an argazki erakuske- ta Udaletxeko arkupetan arratsaldeko 6.30etatik 9ak arte.

■ TARTEKO ETA TERMALISMO PROGRAMA

Gizartekintzak antolatu- tako *Tarteko eta Termaliso- mo programen* udazkeneko

txandarako izena emateko epea zabalik dago. Tarte- koen kasuan epea abuztua- ren 14a arte luzatuko da urrian parte hartu nahi dutenentzat eta irailaren 26ra arte azaroan joango direnentzat. Termalismo programaren epea irailaren 12an bukatuko da. Eskae- ra Bergarako Gizarte Zentruan egin behar da astelehen, asteazken eta



■ LAUGARREN GALERIAK LABURMETRAIA

Uztailearen 14an eta 15ean Arrasate Telebistan Laugarren galeriatik laburmetraia eskainiko da gaueko 9.30etan. Lagun artean Arrasaten egindako laburmetraia Jon Anduezak zuzendu du. Barakaldoko bideo lehiaketan bi sari jaso ditu: pelikula eta gidoi onenari eskainitakoak.

ostegunetan goizeko 10etatik orduata arte. Tel: 76 21 40. Informazio gehiagorako Arrasateko udaletxeko Gizarte Zerbi- tzura zuzendu.

■ ITSASOTIK ITSASORA BIZIKLETAZ

Debaguek itsasotik itsasora gazteei zuzenduta- ko bizikleta martxa antolatu du uztaileako. Uztailearen 18tik abuztua- ren 10a arte iraungo du txangoak. Informazio gehiagorako AEDra zuzendu edo 77 12 28 zenbakira deitu.

■ ERREMINTEN MEKANIZAZIOARI ETA FABRIKAZIOARI BURUZKO IKASTAROA

Ikastaroa profesionalki gaitu gabeko langabetuei eta langabezia denbora luzea daramatenei zuzendu- ta dago, batez ere IEE, BBB, LH-1 eta LH-2ko ikasketak egin dituztenei. Izena emateko Aretxabaletako Institutora zuzendu uztaila- ren 11a arte. Ikastaroa irailaren batean hasiko da, 500 orduko iraupena du eta arratsaldez emango da. (Tel: 79 79 00).



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 11

- Gaueko 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías.
- Gauez: Puy. Bergara.

Larunbata 12

- Gaueko 10ak arte: Español, Iturriotz.
- Gauez: Guallar, Bergara.

Igandea 13

- Gaueko 10ak arte: Corcuera, Musakola.
- Gauez: Guallar, Bergara.

Astelehena 14

- Gaueko 10ak arte: Irizar, Erguin.
- Gauez: Estella, Bergara.

Asteartea 15

- Gaueko 10ak arte: Amezua, Santamaina.
- Gauez: Mozos, Bergara.

Asteazkena 16

- Gauez: Morales, San Andrés.

Osteguna 17

- Gauez: Azkoaga, Ferrerías.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara	76 55 76
-------------------	----------

DYA

Antzuola	78 71 57
--------------------	----------

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria	77 03 46
• Espezialitateak	77 05 78
.	77 12 64
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio (945)	45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
----------------------------------	----------

Udalitzaingoa

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	088

Ertzaintza

Arrasate	79 71 99
--------------------	----------

Suhiltzaileak

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
.	79 78 44
.	79 76 78

Garraioak

Taxiak	79 12 22
PESA	79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa

KIUB-OMIC	79 51 55
---------------------	----------

Monterongo liburategia

Monteron	77 01 05
--------------------	----------

Irratia

Arrasate Irratia	79 58 77
----------------------------	----------

LANGILE KOMISIOAK ZERGATIK EZ?

Langile Komisioetako (CCOO) ezker sindikaleko lagunek pasa den larunbatean amaitu genuen Arrasateko udaletxeko gose greba. Euskal presoek eskubideen aldeko gose greba.

Hasteko, eskerrak eman nahi genizkieke ekimen honetan elkartasuna adierazi dutenei, batez ere euskal presoek senideei, izan diren kontzentrazio guztietan, bai Portaloian bai herriko plazan, gure ondoan izan direlako. Baita ere Arrasateko tanboreoi, hauek lore eskeintza egin baitzizuten.

Gure gose greba hiru arrazoigatik bideratua izan da. 553 euskal presoak Estatu Espainiarreko gartzeletan sakabanatuak pairatzen dituzten giza eskubideen errespetu ezagatik. Arrazoi politikoengatik, gatazka honen konponbidea, eskubide demokratikoaren errekonozimendarekin eta Euskal Herriak bere etorkizuna aske erabakitzeko ahalmenarekin lortuko baitu. Eta hirugarrena eta azkena: arrazoi praktikoengatik. Euskal Herrian gizarte eta politika arazoei aurre egiten ez dien sindikalismoak ez duelako etorkizunik.

Gose greba Langile Komisioetako ezker sindikaleko kide gisa gauzatu dugu, baina zergatik ez Langile Komisioak? Zergatik trantsizio garaian Euskal Herriaren eskubide demokratikoen alde borrokatu zen, eta gaur egun autodeterminazioa defendatzen duen sindikatu honek bizkarra ematen dio ekimen honi? Zergatik jarraitzen du Ajuria Eneko akordioarekin, bere baliagarritasun eza hain argia denean?

Komenigarria litzateke aztertzea Euskadiko Langi-

le Komisioak noruntz bideratzen ari diren, azkenaldi honetan UGTrekin batera daraman ildotik.

Guri gustatuko litzaiguke Langile Komisioek ekimen honetan parte hartzea, ziur baikaude gure afiliatuen gehiengoa euskal presoak Euskal Herriratzearen alde dagoela, eta zigorraren hiru laurdenak beteak dituztenak kalean egon beharko luketela onartzen duela. Ezin ahaztu gaisotasun sendaezinak dituzten presoak kaleratu behar dituztela, legea bete-araziz.

Juan Jose Azkarate

(Arrasateko udaletxean gose greban izan diren 11 lagunuen izenean)

GREBA ARGIAN

Argia aldizkaria eta proiektua zulo beltz batera darama egungo zuzendaritzak. Azken erabakiak ezin mingarriagoak gertatu dira hainbat langilerentzat: Arantxa Erasun, Arritxu Zelaia eta Juan Joxe Petrikorena kale-ratuak izateko bidean dira. Mikel Jauregiri, berriz, bi urte eta bederatzita hilabete lanean aritu ostean, ez diote kontratua berritu.

Erabaki hauek Pello Zubiria zuzendariak bultzatu eta Administrazio Kontseiluak bere egin ditu. Oinarrian arrazoi berari helduz: "Gu ez gara Argiarentzat baliagarriak".

Kronologikoki, Mikel Jauregiren inguruan Administrazio Kontseiluak hartutako erabakiak ekarri ditu katean besteak ere. Azpian sinatzen dugunok ez genuen onartu kontratua ez berritzeko Pello Zubiriak baliatu zituen argudioak, oinarririk gabeak zirelakoan. Honela jakinarazi genion Administrazio Kon-

tseiluari eta berrazter zezan eskatu. Gure eskaerari -eta guri- jaramonik egin gabe baina, erabakiarekin aurrera egitea deliberatu zuen. Kazerari gisa maila ona erakustea eta aldizkariarekiko erabateko atxikimendua ez dira nahikoa izan Mikel Jauregik jarrai dezan.

Zeruko Argia (balizko) SALa ordezkatzeko duen Administrazio Kontseilu inposatuak -hala diogu, ez baitaude langileen esku legez aipatzen diren akzioen %51 eta, bestalde, akziodunen bazarra ez baita deitua izan azken hiru urteotan-behin eta birritan errepikatu ditu antzeko jarrerak: edozein mota-tako bederatzita langileretikiko harremanak eten dira, publizitate, harpidetza eta administrazio ekipoak guztiz berrituz; eta oraingoan erre-dakzioari suertatu zaio "berritzea", partehartzeari eta kontratu politikari buruzko gure kritikek eta ikuspegi-giek baitute lekurik, ez baidara Argiarentzat baliagarriak.

Gauzak honela, plante bati ekin genion joan den astean, eta erantzun gisa ordenadoreetarako sarrerak galaraztea, telefonoa kentzea, kaxoiak hustutzea, ateko zerraila aldatzea eta lau eguneko soldata eta lan suspensioa jaso dugu.

Egoerak okerrera egin duela ikusirik, eta gure eskaerak defenditzeko beste biderik geratzen ez zaigunez, grebarako deialdia egin dugu uztailaren 8tik abiatuta.

- Zeruko Argia SALaren egoera irregularra salatuz eta partehartzea berma dadin eskatuz.

- Lanpostu finkoak aldarrikatuz.

- Ezarri zaizkigun zigorrak ken ditzaten eskatuz.

**Arantxa Erasun,
Arritxu Zelaia eta
Juan Joxe Petrikorena.**

San Ferminetako entzierroak ikusten dituzu?




**Elena Iturbe
Langilea
(44 urte)**

Jaikita egoten naiz eta bazutan ikusten dut. Sekula ez naiz San Ferminetan egon.




**Maria Eugenia Iturbe
Langilea
(23 urte)**

Lanean egoten naiz ordu horretan. Entzierroak gustatzen zaizkit eta gero albistegietan ikusten dut. Zuzenean ere badut ikusita.



**Genaro Garcia
Jubilatua
(66 urte)**

Bai jeikitzen naiz, ez egunero baina ahal dudanean bai. Entzierroa gustatzen zait eta baita San Ferminak ere.



**Gorka Goenaga
Ikaslea
(25 urte)**

Entzierroa ikusteko ez naiz jeikitzen. Iruñara joaten naitzenez zuzenean ikusten dut, baina telebistaz ez.



**Miren Garcia
Irakaslea
(24 urte)**

Ez dut ohiturarik. Eguerdian errepikapena ikusten dut. Egia esateko jai hori ez zait asko gustatzen eta ez naiz sekula egon.




**Saioa Aldasoro
ikaslea
(12 urte)**

Bai egunero jaikitzen naiz dexte gustatzen zait eta.



**Tari Barato
Langilea
(31 urte)**

6etan jaikitzen naiz baina lanera joateko. Eguerdian berriz, badut ikusteko ohitura. San Ferminetara joaten naiz baina ez dut sekula entzierroa zuzenean ikusi.



**Jose Luis Gomez
Langilea
(49 urte)**

Lanera joaten naiz eta ez dut ikusten. Egia esateko ez zait asko gustatzen eta goizean ahal izanda ere, ez nintzateke jeikiko.

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerrias, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62



**MARKO-JARTZEAK
ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

GORKA
ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerrias, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78

USTEAK USTE

Presoak
Estrasburgora

Jauraritzako Giza Eskubideen Batzordea bi proposamen berri eraman dute astean PP, PSOE, eta UAk: aipatu batzordea Arrasateko zuloa ikustera etor zedila alde batetik, eta bestetik Ortega Lara askatzeagatik Guardia Zibila zoriontzea. Egun berean Giza Eskubideen Batzordeak PPko gobernuaren kartzela politika salatzeo Estrasburgora joateko akordioa hartu zuen, lehen aipatutako hiru alderdien desadostasunarekin. Euren eskariak berriz, ez ziren aztertu ere egin, gainerendean ez zeudelako. Egon izan balira ere, ez dut uste horrelako batzorde baten lana inor zoriontzea denik; gutxiago, hango eta hemengo zuloak ikusten ibiltzea. Giza Eskubideen Batzordearen lana, erraza bezain zaila da: giza eskubideak betetzen ez diren kasuak salatu eta bete daitezzen ahaleginak egin.

Nik bai, badut zorionak emateko beta, eta eman nahi dizkiet presoen gaia Estrasburgora eramatea erabaki duten guztiei, legeak edozein unetan betetzeko daudelako, ez egoera edo komenientzia baten edo bestearen arabera.

Beñardo Kortabarría



AHT atarian daukagu

Patxi Agirrebeña

Hain urruna zirudien Abiadura Handiko Trenajadanik hemen dugu. Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektorialaren Aurrerapena udaletxeetara bidalia izan da, hauek behar dituzten emendakinak aurkezteko epea zabalduz. Aurrerapenak hiru alternatiba nagusi aurkezten ditu AHT egiteko: hauetariko bat, Urkiolako Parke Naturaletik pasatzen dena, baztertua izatekotan zegoen suposatzen zuen kostu ekonomiko ikaragarriagatik; indarrengoan leudekeen beste bi alternatibetatik, bata Udalaitez zulatzen duena da, eta bestea Uribe-Auzo gaineratik biadukto bat egitea proposatzen duena. Komunikabideetan plazaratu zenez, Arrasateko udaletxeko hirigintza-batzordearen asmoa bi alternatiba hauen aurkako emendakinak aur-

keztea zen, eta gainontzeko alternatibaren Arrasaten geltoki bat egitea proposatzea. Guk, gure aldetik, Aurrerapen honen kritika-txosten bat plazaratu dugu, bertan Aurrerapenaren aspektu helburuzko, desarroilista eta teknikoak aztertzen ditugularik.

Informazio gehiago nahi duenak, hiritar bezala eskubidea du Aurrerapena hirigintza-batzordean azertze-

ko; Monrerroneko Artxibategian ere kopia bat dago gure txostenarekin eta AHTren Aurkako Asanbladaren informazio gehiagorekin batera.

Proiektu honek suposatzen duen kalte konponezinak kontuan hartuz eta oso aurreratuta dagoela ikusirik, hiritarrei zera eskatzen diegu: batetik proiektu honen gorabeheraz jabetzeko esfortzu bat egin dezatela beraien hiritar eskubideen egikaritzan informazio publiko gehiago galdatuz eta ankerkeria hau gelditzen saiatu daitezela dauden bide guztiak erabiliz.

Herri honek etorkizunik izan behar baldin badu behintzat.

Patxi Agirrebeña,
Abiadura Handiko
Trenaren aurkako asanbladakoa da

“
Hiritarrei zera eskatzen diegu: proiektu honen gorabeheraz jabetzeko esfortzua egin dezatela
”

Memesa
79 42 22

UGARAN
jaketxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Sili Sili
Martxa eta estilo
handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82



PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND ETA FLASH METODOA)
- SOLARIUMA DUTXAREKIN

**ABUZTUAN
ZABALIK!**
(18an eta 19an itxita)

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

SESIOA: 3.300 pta.

11 sesioko tratamenduagatik sesio bat eta manikura doan!

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.

Iparragirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan
☎: 79 52 17 ARRASATE



WERU®
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVCko ate eta
leihoez gain:
Moketak jartzea,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, textila...

astea bi hitzetan

■ **Arrasate XX. mendean erakusketa**

Arrasatek XX. mendean izan duen bilakaera jasotzen duen erakusketa inauguratu zen joan den ostiralean Harresi aretoan. Eusko Ikaskuntzaren eta Arrasateko Udalaren arteko hitzarmenari esker antolatutako erakusketa industriar oinarritzen da batez ere. Hala ere, herrian zeresana izan duten beste gai batzueri buruzko berri ere jasotzen dira argazkiekin, testuekin eta hainbat tresnekin osatuta dagoen erakusketan.

Inaugurazio ekitaldian parte hartu zuen Eusko Ikaskuntzako eta Udaleko hainbat ordezkariak. Arrasateko alkateak eta Eusko Ikaskuntzaren ordezkariak bat egin zuten herrian museo bat jartzea komenigarria litzatekeela esaterakoan. Tresna zaharrak galtzeko arriskua dagoela eta, horiek bilduko lituzkeen gune bat antolatzearen alde hitz egin zen ostiraleko inaugurazioan.

■ **Internet Monterronen**

Astelehenean hasi zen Monterongo informatika gela internet zerbitzua eskaintzen. Interneten nabigatu nahi dutenek, lau ordenagailu dituzte eskura horretarako.

■ **Milioi bat eta erdi pezeta garbi**

Duro Felguerako langileen alde egin zen kontzertuan milioi bat eta erdi pezeta bildu ziren. Diru kopuru hori Asturiasera bidali da. Bildu-

tako dirutza, hala ere, handiagoa izan zen baina kopuru bat hainbat gastu ordaintzeko zuzendu da. Kontzertua eskaini zuten taldeek ez zuten ezer kobratu.

Ekainaren 20an egin zen Duro Felguerako aldeko kontzertua kiroldegian.

■ **Hildako langileen alde enkartelada**

Langile Komizioak sindikatuko afiliatuak eta jarraitzaileak enkartelada egin zuten

astearte arratsaldean. Orain dela gutxi Valentzian eta Mallorcan hainbat langile hil direlako egin zuten enkartelada. Lan baldintza hobekatu, eta ugazabek langileen segurtasunean gutxi inbertitzen dutela salatzea izan ziren ekintzaren helburuak. Langile Komizioak sindikatuaren ustez, jabeek produktibitateari begiratzen diote bakarrik, eta ez dute betetzen langileen prebentzioari buruzko legeak esaten duena.



GIPUZKOAREN 600. URTEURRENA

Ingandean Gipuzkoa sortu zeneko 600. urteurrena ospatu zenez, Getarian egin ziren ekitaldietan parte hartu zuten Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriaztako alkateek besteak beste. HBko ordezkari guztiek egin bezala, Xabier Zubizarretak ere "Herri bat gara, Euskal Herria Askatu" zioen pankarta bat zabaldu zuen hainbat unetan.



DISCOPOLIS

KONPAK DISKAK • KASETTEAK • BIDEOAK • OSAGARRIAK
BERRIKUNTZAK ETA KATALOGO ESKAINTZA ZABALA

Juan Carlos Gerra plaza, 1 behe • ARRASATE
Tel.: 77 02 13

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

ZU LAGUNTZEKO GAUDE!

- Plantilla bereziak, behar bakoitzari erantzunez
- Aluminioko gurpil aulkiak: arinak, tolesgarriak eta elektrikoak
- Bizkarreko minak kentzeko gerrikoak

Lagun-Aro-ko errezetak hartzen ditugu.

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

**IBARRA
Garajea S.L.**



Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tel.: 79 20 56

● **Txitxinpe** ●

Berezitasunak:

Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 79 15 65

Jaiotzak


- Iker Pereira Jauregi. Ekainaren 7an.
- Jone Aranzabal Uriarte. 8an.
- Julen Mendarozketa Unda. 14an.
- Maite Diosdado Inza. 16an.
- Aner Ozaeta Perez de Aranza. 17an.
- Leire Etxezarreta Learreta. 18an.
- Ainhoa Zabalo Caballero. 23an.
- Aitor Gonzalez Hernandez. 24an.
- Andoni Lasaga Mendizabal. 26an.
- Mattin Rozas Lizarralde. Uztailaren 1ean.

Ezkontzak

- Manuel Mosquera Cachafeiro eta Ana Belen Renda Garcia. Maiatzaren 31n. Elizaz.
- Alberto San Vicente Corcuera eta Maria del Carmen Carmona Eslava. Ekainaren 7an. Elizaz.
- Jose Antonio Lage Alvarez eta Rafaela Escobar Polonio. 14an. Zibilez.
- Jose Antonio Negreira Rodriguez eta Susana Martinez Ugarte. 17an. Zibilez.
- Ignacio Lasanta Uribarren eta Maite Zeziaga Bolinaga. 27an. Zibilez.
- Luis Maria Uribesalgo Leturiaga eta Diana del Carmen Martinez Ortiz. Uztailaren 1ean. Zibilez.

Hildakoak

- Maria Pascuala Agirre Larrañaga. Ekainaren 22an. 79 urte.
- Juan Antonio Murillo Delgado. 27an. 64 urte.
- German Gallastegi Elkorobrutia. 27an. 84 urte.
- Jose Ramon Vitoria Berezibar. Uztailaren 3an. 63 urte.
- Rafael Gomez Soto. 3an. 77 urte.
- Federico Ansuategi Mozos. 7an. 57 urte.



A-20 guneko hainbat enpresek hitzarmena sinatzearen kontra azaldu ziren Ezker Batuko bi zinegotziak.

Beste sei enpresak ere A-20ko urbanizazioaz arduratu nahi dute

Musakolan, A-20 izenez ezagutzen den gunean, bigarren faseko urbanizazioa egin behar da, eta hori egiteko hitzarmena sinatuko dute sei enpresak Udalarekin. Aurreko plenoan lau enpresak sinatu zuten hitzarmen mota hori, eta gaurkoan beste seik.

Era horretan, enpresa horiek arduratuko dira dagoen urbanizazioa egin eta ordaintzen. Hitzarmen mota hori sinatu ez duten kasuetan, Udalak zuzenduko du urbanizazioa. Horregatik, ostiraleko plenoan urbanizazio horiek egiteko ardura adjudikatuko dio Udalak enpresa bati. Ondoren hitzarmenetik kanpo geratu

diren enpresek ordaindu beharko dute urbanizazioaren kostua.

Hitzarmenak sinatzearen kontra azaldu zen azken plenoan Ezker Batua, eta seguruen, gaurkoan ere alderdi horretako bi zinegotziek jarra berdina hartuko dute. Euren ustez, enpresek hitzarmena behar moduan ez betetzea gerta daiteke eta horregatik, arriskutsua jo zuten hitzarmen horiek egitea. Udaletxeko idazkariak ere hitzarmenen kontrako txostena egin zuten, Udalarari arazo legalak sor dakizkiokela uste du eta.

Gainontzeko alderdietako zinegotziak alde azaldu, eta hitzarmenak sinatzea onartu zuten.

ZINEGOTZI SOZIALISTA BERRIA

Gaur arratsaldean egingo den plenoan, bestalde, zinegotzi berria aurkeztuko du PSOE-EEK.



Ismael Gonzalez izango da zinegotzi kargua hartuko duena, eta Esther Fernandez ordezkatu du. Bigarren aldia da alderdi sozialistak zinegotzi berri bat aukeratzen duela, aurrekoek kargua uztea erabaki ondoren.

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tel.: 79 14 16
ARRASATE

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 79 22 70

argiñe

Mertzeria eta
umeen moda

Uribe auzoa, 2 • Tel.: 79 35 41
ARRASATE

Sei lagun espetxean sartu dituzte eta beste bi aske geratu Makina bat komunikabide etorri zen Arrasatera zuloa ikustera

Astehenean zuloa ikusteko aukera izan zuten komunikabideek, eta guzti-guztiak etorri ziren Ortega bahituta egon den zuloa ikustera.

Guardia Zibilak Jalgi tailerreko sukaldea, komuna, egongela bat eta bi makina erakutsi zieten komunikabideei. Zuloari dagokionez, eta konparazio bat egitearren, kiroldegiko saunaren antzekoa dela esan daiteke. Zuloaren zoruan sintasolarekin estalia zegoen eta hormetan egurrezko lamina batzuk. Barruan amaka bat, mahai bat, eta bi poster zeuden besteak beste, eta hezetasuna nabaria zen. Sistema hidrauliko baten bidez jasotzen zuten bahitzaileek zuloa sartzeko tapa, eta eskailera batzuetatik barrura sartu.

Ortegaren bahiketarekin zerikusia dutelakoan atxilotutako sei lagun espetxean sartu dituzte. Arrasatearrei dagokionez, Josu Uribetxebarria Carabanchelgo kartzelan, eta Emilio Arrizabalaga Alcala Mecon sartu dute. Igandean bestalde, Iñaki Berezibar, Gasteizen bizi zen arrasatearra, atxilotu zuten baina asteartean aske geratu zen. Ortegaren osasunaz arduratu izana leporatu zioten Berezibarri hasiera batean.


Hainbat egunez inkomunikatuta egon ondoren, astean inkomunikazioa altxatu die epaileak espetxeratuei. Lerro hauek idazterako orduan, hala ere, familiak izendatutako abokatuek oraindik ez zuten eduki espetxeratuak zein egoeratan dauden jakiteko aukera.



Komunikabideetako langileak estu eta larri ibili ziren zuloa sartzeko.



Zulo honetan pasa zituen Ortega Larak 532 egun.



Guardia Zibilaren arabera, makina honen barruan ekarri zuten bahitua.

UGARTE

Industri
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00
Fax: 793412

**Plus Ultra
taberna**

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 79 20 57

URRATS
AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tel.: 79 87 74
ARRASATE

LANPOSTUA!
Jostuna behar da
esperientziarekin,
arropa denda
baten lana
egiteko.
Tel. 909 27 40 95
(goizez)



IKERNETXO EZKONDU

Neskatilatxo hau nagusi egin da eta bihotzeko azukre kozkorra ere aurkitu du. Bihar bat egingo du bere laranja erdiarekin, eta horregatik bere kua-drilakoek zorionak eta agur bero bat luzatu nahi diote. Zorte on!



JUBILATUAK LURDESERA

Autobuskada bat arrasatear egon berri da Lurdesen. Santamainako jubilatuak izan dira Lurdesera bi eguneko bidaia egin dutenak. Goizetik gauera arte hona eta hara ibili ziren Toki Argiko lagunak. Egun konpletoak izan ei zituzten.



NAFARROA ETORBIDEKOEN AFARIA

Edozein aitzakia ona da afari bat egiteko. Nafarroa etorbidekoek, esaterako, kale berean bizi direlako egiten dute afaria, eta joan den zapatuan horixe egin zuten. Aurtengoan 14 lagun bildu ziren bakarrik, baina datorren urtean askoz ere gehiago izango ei dira.

Rent a Car
 Alkilerreko autoak:
 Twingo, Clio, Mégane,
 Laguna, Espace...
 Tel.: 79 50 12 / 79 52 12




Rocioa eta euria

lagun minak direla argi eta garbi dago. Zapatuan Rocioaren eguna ospatu zen, eta euriak erromerian parte hartu nahi izan zuen. Ondorioz, jendeak autoz edo autobusean igo behar izan zuen Udalara. Eguraldi txarra egin arren, andaluziarren umore onak euriari aurre egin zion.



Iturbide egoitzako terrazan lasai lasai aurkitu genituen Manuel, Avelino, Consuelo eta Garbiñe.

Zahartzaroa igarotzeko beste aukera bat

Iturbide egoitza

Garbiñe, Consuelo eta Manuel egoitza zabaldu zene-tik daude bertan, duela 13 urte.

Hirurak antzerako arrazoiak bultzatuta sartu ziren. Garbiñek, bakarrik bizi zenez, egoitzan ikusi zuen zahartzaroa igarotzeko irtenbide onena. Consuelok seme bakarra du, ahizparekin bizi zen eta hiltzerakoan egoitzara joatea erabaki zuen. Larriñoko Manuelek andrea hil zitzaionean hartu zuen Iturbidera joateko era-

Bakardadetik ihes egiteko, familia barik gelditu direlako edo etxekoek edadedun pertsona hori ezin dutelako zaindu. Horiek izaten dira zaharren egoitza batera sartzeko arrazoi nagusiak, baina hala ere, bere borondatez joaten denik ere bada-go. Arrasaten egoera horretan dauden andra-gizonak hartzen ditu Iturbide egoitzak. Bertan 98 lagun bizi dira. Iturbide egoitzan dauden batzuen bizitza ezagutzeko Garbiñe Larriñaga, Consuelo Altube, Manuel Garai eta Avelino Retegirekin izan gara.

bakia. Elorrión jaiotako Avelinori duela bost urte hil zitzaion emaztea, eta ordutik dago Arrasateko egoitzan. Laurek bakardadetik ihes egiteko euren kabuz aukeratu

zuten egoitzako bizitza. Beraz, hasieran ez zitzaien etxe berri-rra joatea gogorra egin. "Andra abuztuan hil eta seme-alabarik ez dudanez urtarrila arte etxean bakarrik egon nintzen.

Orduan konturatu nintzen osasuntsu egon arren, zein gogorra eta tristea den bakardadean bizi izatea". Avelinoren hitzak ziren horiek.

Iturbideko bizitzaz ez dira kexatzen, gainera senitarteko-koen bisita sarri jasotzen dute. Manuelek 87 urte ditu eta iaz arte gidatzeko karneta zuenez, Larriñora joaten zen famili-koekin egotera; orain ez du autorik eta penaz dio ezin dela bertara zuzendu. Avelino eta Consuelo domeka askotan joaten dira familiarekin bazkal-

tzera eta Garbiñek ere bisita ugari jasotzen du. Egoitzan familiaren berotasuna sentitzen dutenez, ez dute faltan botatzen. Avelino emazteaz gogoratzen dela esaten du. Garbiñek familiaren beharra batez ere gaisorik dagoenean nabaritzen du.

Avelino, Manuel, Garbiñe eta Consuelo ez daude damututa egoitzara joan izanaz. "Hemen ez gara traba inorenako, gure bizitza egiten dugu". Manuelek eta Avelinok bizitza eroso dela diote. "Dena egina dago, arropa, jana, gaisorik bazaude tinbrea jo eta laguntza duzu. Etxean egonez gero eta bakarrik gainera, norberak egin behar ditu gauza horiek guztiak. Hotel bat bezala da, orduak errespetatu eta primeran bizi zaitezke".

"Emaztea bizi zenean eta Iturbideko obrak egiten ari zirenean -esaten du Avelinok -biok bertara etorriko ginela esaten genuen. Tamalez emazteak ez zuen nirekin batera etortzeko aukerarik izan, hil egin zen eta".

13 urte eraman ondoren egoitzak izan dituen aldaketak eta bilakaera ezagutu dute gure protagonistek. Garbiñerentzat hasieran gustorago zeuden. "Lehen orain baino gehiago gozatzen genuen. Gazteagoak ginen eta jendea berba egin eta harremanak sendotzeko hobeto zegoen. Era berean jatekoa hobea zen". Jatekoaren gainean gizonak ez dute desberdintasunik antzeman. Emakumeek berriz, kalitateak behera egin duela pentsatzen dute. "Orain jatekoa korrientetsuagoa da, nahiz eta egunero diferentea izan".

BESTEETAN HARREMANAK


Elkarrizketatutako lau lagunak fisikoki arazoren bat izan arren, psikikoki ondo daude, dena egiteko gauza dira. Consuelok eta Garbiñek esate

baterako, eurek egiten dute ohea. Avelinok eta Manuelek ohea egin ez, baina beste gauzak egiteko ez dute inoren beharrik. Egoitzan ez dago jende asko lau lagun hauen egoeran, horregatik diote jendearen arteko harremanak gero eta zailagoak direla. "Jende gehiena ez dago burutik ondo. Gu neska-mutil bezala sasoiaren etorri ginen. Orain datozenak ez daude horrela". Bizilagunen arteko harremanak sakonak ez badira ere, langileekin ez daukate arazorik. Manuelezat eta Avelinorentzat egoitzan guztiak ezagunak dira baina horrek ez du esan nahi familia handi bat osatzen dutenik. "Hemen ere badaude ardi beltzak, eta haserreak ere izaten dira, baina... tira!".

NOLA IGAROTZEN DUTE EGUNA


Garbiñe eta Consuelo 8ak aldera jaikitzen dira. Prestatu eta ohea egin ondoren, gosaltzera. 11etan meza izaten dute eta ahal denean bertara joaten dira. Bazkaltzeko ordura arte egoitzan ibiltzen dira pasioan eta behin bazkalduta, biek siesta botatzen dute. Arratsaldetan ona egiten badu, pasiotxo eman eta lagunekin egotera, 8etan afaltzen duten arte. Ez bata eta ezta bestea ere ez dira telebista zale. Consuelori ez zaio asko gustatzen eta Garbiñek, begietako ebakuntza egin diotenez, oraindik ez du bista guztiz berreskuratu.

Avelino ere 8etan jaikitzen da. Honi arrosatzen duen bitartean egunkaria irakurtzea gustatzen zaio, eta 11ak aldera pasiatzen joaten da. 12etan Abaroara zerbait edatera. Bazkalduta ostean Avelinok ere siesta egiten du. Ondoren Abaroan kartaka nola jokatzeko duten ikusten dagoen bitartean, zigarro purua eta kopa hartzen ditu. Arratsaldean ere pasiatzea gustatzen zaio, baina bakarrik. Afaldu ostean telebista ikusten du nekatu



Beste batzuk ez bezala lau lagun hauek osasuntsu daude eta ez dute inoren beharrik.

Iturbide egoitzan bi errealitate desberdin bizi dira. Sasoiak daudenean barruan baino kanpoan igarotzen dute denbora gehiago. Ezinduendako zahartzaroa gogorragoa izaten da.



uzak egiteko.

saten eta bertara joaten da eguzkia hartzera edo garajearen duen tailerrean bastoiak egitera. Hori ei da bere afizioa. 12etarako kalera jeitsi eta eguneroko txikiteoa bazkalordura arte. Siesta eginda pasiatzeko ohitura du eta arratsaldeko txikiteoa ere sakratua da Manuelendako. Karta zalea ez denez afalostean gelara igotzen da telebista ikustera. Manuel bakarrik bizi da gelan.

ZER BOTATZEN DUTE FALTAN

Iturbide egoitzan ondo badaude ere, behar batzuk ikusten dituzte. Garbiñek eta Consuelok egoitzan sendagile baten premia ikusten dute. "Sartu ginenean sendagilea jarriko zutela agindu ziguten, baina oraindik zain gaude. Txarto ez bazaude anbulategira joan beharra dago eta urrutik geratzen zaigu". Manuelek megafonian eta telefonoan ikusten du akats handiena. "Megafonia zentrala da eta enkargu guztiak bertatik ematen dituzte. Dagoena ez entzuteko gelako megafonia kenduz gero, eta tarte horretan deiren bat badago, ez zara enteratzen".

Avelino, Manuel, Garbiñe eta Consuelo Iturbide egoitzan dagoen egoera ikusita, pribilegiatu batzuk direla esan genezake. Bertako errealitatea gordinagoa da eta pertsona askoren egoera askoz tristeagoa. Lau lagun hauek kalera edo eguzkia hartzera joaten diren bitartean, egoitzan ezin mugitu eta burua guztiz galduta jende asko geratzen da. Azken hauei zahartzaroren aurpegi goibelena bizi izatea egokitu zaie. Gainera gero eta luzeago bizitzeko joera dugula kontuan hartuta, zaharren egoitzetako egoera hemendik aurrera gero eta gogorragoa izango dela pentsa daiteke. ■

Itxaro Zubillaga

Iturbide egoitzan sartzeko baldintzak eta proiektu berriak

Iturbide egoitzan gaur egun 98 lagun daude eta 34 langile. Bertan bizi direnen %56a ezindua da eta horietatik %30ari dena egin behar zaio. Olatz Etxabek, udaletxeko ongizate saileko teknikariak esan duen bezala, bertara sartzeko baldintza bat nahi eta nahiez bete behar da: arrasatearra izatea edo azken bost urtetan bertan bizi izatea. Baldintza nagusi hori betez gero, udaletxera joan beharra dago eskaria egiteko. Udaletxean pertsonaren egoera fisikoa, ekonomikoa, soziala, bakarrik bizi den edo ez eta etxebizitzaren egoera hartzen da kontuan. Guzti horrekin puntuaketa bat egiten dute eta plaza libreak daudenean puntu gehien dituenen sartzan da. Lau zerrenda daude: emakumezkoena, gizonezkoena, ondo daudenena eta ezinduenena. Alzheimer moduko gaisotasunak dituztenek sartzeko orduan ez daukate arazorik, beharrezko arabera puntuaketa handiago izaten dute eta. Une honetan 24 lagun daude itxaron zerrendan eta beste lau gutxienez kanpoko egoitzetan hemengoan ez dagoelako lekurik. Foru Aldundiak dituen egoitzetara bidaltzen dira herrian toki bat izan arte. Iturbide egoitzan bizi izateko diru kopuru bat ordaindu behar da. Ezinduek 82.000 pezeta eta ondo daudenek 62.600 pezeta. Gaur arte egoitzako lagunek kuota ordaintzen zuten, beste zati bat Udalak eta beste bat Foru Aldundiak. Baina beharbada datorren urtetik aurrera finantziario modua alda daiteke. Diputazioak onartutako dekretuaren arabera pertsonaren diru sarrera eta kostua izango da kontuan diru laguntza emateko edo ez. Ezarrita dagoen kopurutik pasatuz gero, Diputazioak ez du ordainduko, besteei jakina bai. Udalak proiektu berri bat ere badu eskuartean Olatzek aipatu duen moduan. "Udaletxean lanean gabiltza eguneko zentro bat zabaltzeko, eta egoitza aprobetxatu jendeak eguna bertan pasatu eta lo egiten etxera joateko. Jende asko dago familiarekin bizi dena baina egunean zehar bakarrik dagoena. Proiektua aurrera badoa epe motzean zabaldu daiteke zerbitzu berria. Horrez gain, uste dugu erresidentzia ezinduendako geratuko dela, ikusten den joera hori da eta".

Iturbide egoitzan jakin izan dugunez badago beste arazo bat, langile kopuru urria. Jendea gero eta okerrago dagoenez laguntza gehiago behar du. Horretarako dirua behar da baina eman behar dutenak ez daude horretarako gertu.

arte. Azken 30 urtetan ez duela kartaka jokatu esan digu eta txikiteorik ere ez du egiten. "Lehen larregi edan nuelako sendagileak debekatu egin dit. Horrela jarraitzen baduzu txaketa galduko duzu esan eta uztea erabaki nuen".

Manuel aurrekoak bezala goiz jeikitzen da. Honi ere armosatu eta gero, egunkariari begirada ematea gustatzen zaio. Manuelek etxea du Arra-



Arrasate Saskibaloia taldeko arduradun berriak.

Talde eta helburu berriak saskibaloia taldearendako

Bigarren mailan, baina Arrasate saskibaloia taldea izaten jarraituko du. Herriko zazpi gazte animatu dira kirol horren alde lan egiten. Behin eta berriz esan den bezala, aurreko zuzendaritza batzordeak taldea utzi zuenetik saskibaloia etorkizuna kilokolo zegoen; orain berriz, lagun hauei esker proiektu berri bat sortu da, helburu eta ideia desberdinekin. Talde berriko kideek dagoeneko banatu dituzte zereginak. Lehendakaria Jon Basurko izango da. Lehendakari-ordea Unai Lopez. Diruzainak Cesar Azkarate eta Rikardo Vicente. Bokalak: Daniel Aiastui, Mikel Basurko eta Luis Maillo. Zuzendaritza batzordea dena dela, oraindik zabalik dago saskibaloia alde lan egin nahi duten guztientzat. Aipatutako gazteek beti izan dute saskibaloiarekin nola-baiteko harremana, gehienak jokalarik eta laguntzaile izan-

dakoak direlako. Hala ere, argi utzi nahi dute euren talde berria sortzen dutela eta euren ideiak ez datozela bat aurreko zuzendaritza batzordearekin. Bestalde saskibaloia maite dutelako eta herrian kirol hori egotea beharrezkoa ulertzen zutelako heldu diote proiektu berriari.

HELBURUAK BANAN BANAN

Talde honek jakina helburu berriak ditu. Lehenik eta behin Arrasaten saskibaloia jokatuko edo entrenatu nahi duenari gauzak erraztu nahi dizkiote. Horrez gain maila federatu guztietan izan gura dute ordezkariak: kadetetan, juniorretan, seniorretan. Eskola mailako saskibaloia bultzatzea ere beste helburu bat izango litzateke. Heziketa mailan ere lan egiteko gertu azaldu dira: entrenatzaileak eta epaileak bezalakoak eta talde dinamika bat sortuz. Azken ideia hori

aurrera eramateko 3X3 txapelketak antolatzea dute pentsatuta, gabonetako txapelketak, kanpusak, bidaiak eta entrenatzaile ikastaroak besteak beste. Amateurismoa bultzatu aurrekontu aldetik ondo ez dabilzalako eta inguruko taldeekin harreman estuak izan dira beste asmo batzuk. Gazte hauek esan dutenez, euren helburua bigarren mailan jarraitzea da eta maila hori azpiko taldeetan eginiko lanaren isla izatea. Ez dute lehen mailako talde izan nahi azpiko kategorietan lanik egiten ez bada. Jokalariei dagokienez ingurukoekin nahi dute taldea osatu, fitxaketa izarrik egin barik. Ideiak argi eta garbi dituzte, orain abian jartzea izango da euren eginbeharrak nagusia eta bide batez, babesleak bilatzea euren proiektuak gorputza har dezan. Taldea uztaila bukararako egituratuta izatea espero dute.

Ane Lopez de Bergarak hiru domina lortu ditu Estatuko txapelketan

Arrasate Igeri taldeko partaideak Bartzelonan izan ziren asteburuan Estatuko aletadun txapelketan parte hartzeko. Guztira zazpi ordezkari: Ane Lopez de Bergara, Eneritz Jauregi, Olaia Murua, Rosa Dacosta, Izadi Mondragon, Beñat Zabala eta Esther Gomez. Ane Lopez de Bergarak 1.500 metrotan zilarrezko domina lortu zuen. 800 eta 400 metrotan brontzezkoa. 400 metroko lasterketa lehiatsuenan izan bazen ere, zilarrezko dominak eman zion poztasun handiena Aneri, bere denbora 22 segundutan hobetu zuen eta. Eneritz Jauregik berriz 50 apnean gutxieneko denbora lortu zuen. 4X100 errelebo frogan Anek, Eneritzek, Izadik eta Olaiak 5. postua lortu zuten. Pedro Belinchon entrenatzailea gustora zegoen Arrasateko ordezkariak egindakoarekin. Era berean Anek Europako txapelketara joateko aukera izan dezake Mallorkako probetara deitzen badiote behintzat.



Ane Lopez de Bergara.

Donostia Cup esperientzi berria eta ezin hobe arrasatearrendako

Arrasateko Bizkorra taldeak irabazi egin zuen Gazte mailako onenariakoa den Donosti Cup Eroski txapelketa. San Frantzisko Xabier ikastolaren izenean joan ziren Jose Ramon Zabaletaren gidaritzapean dabiltzan mutilak. Futbol jokalariek gazte hauek txapelketan parte hartzen zuten lehen aldian zen eta trofeoarekin etorri dira. Arrasatek zazpi neurketa jokatu behar izan zituen eta denetan garaile atera ziren. Finala Frantziako Español de Orleans taldearen kontra jokatu zuten zapatuan eta arrasatearrak euren legea ezarri 5 eta 2 nagusitu ziren. Gainera gol gutxien jaso duen taldea izan da, 7 jaso eta 45 sartu. Horretaz gain, Asier Sanchez txapelketako alebin



Talde honek Donostia Cup txapelketa irabazi zuen.

mailako jokalariek onena izendatu zuten. Txapelketan 16 nazioetako 3.300 jokalarik baino gehiago izan dira, beraz Bizkorra taldeak lortutakoa txalotzeko modua dela esan daiteke. Jose Ramon Zabalek 13 jokalariek eraman zituen:

Oier Zabaleta, Aitor Berasaluce, Mikel Azkargorta, Kepa Merkader, Ganix Lasa, Jon Zabaleta, Jokin Bereziartua, Kepa Etxebarria, Julen Zaitegi, Mikel Gonzalez, Asier Sanchez, Maikel Hernandez eta Jon Loiti.

Txirrindularitza

Born Jay taldeko txirrindulariek Elgetako proba, mendiko kriteriumerako baliogarria, izango dute zapatuan. Domekan Antzuolako lasterketa, 23 urte azpiko txirrindulariendako.

Pilota

Arrasateko pilotariek etxetik kanpo jokatu dute asteburuan. Uribarrenek lau térdiko txapelketako partidua jokatu du zapatuan Gasteizen. Zuazua eta Arroioabe alebinek gaueko 9.30etan Aramaio txapelketako finala izango dute. Domekan Jauregi eta Etxeandia Otxandioko txapelketara joango dira. Astelehenean eta asteazkenean Makatzena txapelketako partidua jokatu dira Obenerrekan.

“MUGARIK GABEKO GAZTEAK” VIII. ARGAZKI LEHIAKETA


2 KATEGORIA

- A) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak
- B) 19-35 urte bitarteko edozein.

SARIAK

- A) kategoria
 - 1) 20.000 pzta
 - 2) 15.000 pzta
- B) kategoria
 - zuribeltzean 1) 50.000 pzta.
 - 2) 35.000 pzta.
 - koloretan 1) 50.000 pzta.
 - 2) 35.000 pzta.

Emakume sailaren sari berezia: 40.000 pta.



Juan Jesus Huelva

Lanak aurkezteko
epea: URRIAK 10



ARRASATEKO UDALA

Gazteria Saila ■
Emakume Saila ■



ARRASATE
KIROLAK



*Itsasoak nau bizitzen,
hark berak nau izitzen;
bizi laburra emanen,
gero berak eramanen.*



Askatasuna eta lasaitasuna bizimodu naturala dela pentsatzen dutenentzat:

INGURUGIROA ERRESPECTATUZ

Gaur egun beste hainbat enpresa bezala, TERNUA ingurugiroa errespetatzen duten erabakiak hartzen saiatzen da.

TERNUAk ingurugiroaren hobekuntzak aurrera eramateko konpromezua hartu du, neurri batean, neurrigabeko baso-mozketak ekidi daitezten.

Modu berean, TERNUA mehatxaturiko espezie eta espazioak gordetzeko ahaleginetan dabilzan nazioarteko taldeen partaide ere bada. Honela, itsas-ugaztunak bizi izateko baldintza seguruak izatea ahalbidetzen du TERNUAk, horretarako beharrezkoak diren ikerketa zientifikoak finantziatuz.

ARRASATE KIROLAK, Arrasateko hornitzaile ofizial bakarra.

KIROL BAKOITZERAKO ERANTZUN BAT.

MANEX AGIRRE, Urruzuno lehiaketan saritua

“Aitona imaginario bat deskribatzen dut nire ipuinean”

Manex Aramaion bizi da baina Arrasateko Institutuan ikasten du DBHko lehen mailan. Klasean idatzitako *Aitona* idazkiarekin, Eusko Jaurilaritzak antolatzen duen Urruzuno Literatur lehiaketan izan da saritua. Euskal Herri osoko gazteek hartu dute parte lehiaketan, beraz ez da marka makala Manex-ek egindakoa.

- Zer dela eta aurkeztu zinen Urruzuno literatur lehiaketara?

- Irakasleak ekarri zituen lehiaketaren oinarriak klasera. Denok idazlan bat egitera animatu ginen eta irakasleak irakurri zituen. Maisuak bidaltzeko esan zidan, ondo zegoela eta. Nik ere gogoia nuen eta azkenean klaseko beste hiru lagunekin batera aurkeztu nintzen lehiaketara.

- Zer kontatzen duzu *Aitona* lanean?

- Izenburuak esaten duen bezala, nire aitonaren deskribapena da. Dena den ez da deskribapen fisikoa, gehienbat barne deskribapena egiten saiatu naiz. Fikziozko pasarteak ere sartu ditut, aitona imaginario bat bailitzan. Nik deskribatzen dudana aitona ez da nire aitonaren berdina.

- Deskribapena ez al da beste genero batzuk baino zailagoa?

- Deskribapena lanaren zati bat da. Beste gai batzuk ikutzen ditut. Bizitzaren eta heriotzaren arteko erlazioa. Heriotzak sortzen dituen ondorioei eta beldurrari buruz erreflexionatzen dut. Nik oraindik urrutik ikusten dut baina halabeharrezkoa da; eta hori denok barneratu behar dugu.

- Irakurtzea gustokoa duzu?



Bai, asko irakurtzen dut. Noizbait liburu bat idatziko banu umorezkoa egingo nuke, barre egitea asko gustatzen zait eta.

- Sari hau lortzeak animoa eman dizu idazten jarraitzeko?

- Ez nuen espero inondik inora sari hau lortzea. Sorpresak animoa ematen dizu, baina zaila ikusten dut idazle bezala aurrera ateratzea. Hala ere, beste lehiaketa batzuetara aurkezteko gogoia ematen du horrelako sariak.

- Urruzuno lehiaketak sari polita eskaintzen du....

- Greziara bidaiara eta han gastatzeko 40.000 pezeta da saria. Irailaren bukaeran egingo dut bidaiara baina uste dut bakarrik joan beharko dudala. Gogo handia dut Grezia ezagutzeko, baina lagunen batekin joatea gustatuko litzaidake, ahal balitz behintzat.

aste gazte

■ LANA

• Gipuzkoako San markos mankomunitateak lanpostu hauek deitu ditu: administraria, ingurugiro teknikaria, zerbitzuen teknikari arduraduna eta mantenimenduko teknikaria. Epea: uztailak 14.

• Berako “Isidoro Fagoaga” Musika Eskolak hainbat lanpostu bete nahi du: klarinete eta saxofoi irakaslea, kitarra klasiko-elektro irakaslea, tronpeta irakaslea, txistu irakaslea eta perkusio irakaslea. Epea: uztailak 27.

• Irungo Euskaltegiak 2 irakasle behar ditu. Epea: uztailak 23.

■ BEKAK

• Herri administrazioaren arloan prestakuntza eta ikerketak egiteko sei beka, HAEE-IVAP-ek deituak. Baldintzak: Zuzenbidea, Zientzia politikoak, Soziologia, Psikologia edo Pedagogiako lizentziatura 94ko ekainean edo geroago bukatua izatea. Epea: uztailak 15.

• Karrera fiskala eta epaitzarako oposaketak prestatzeko laguntza ekonomikoak, EHEAko oposiziogileei zuzenduak. Epea: uztailak 15.

• BBK bekak: Bizkaiako hainbat enpresatan praktikak egiteko. Baldintzak: BBKko konturen baten titularra izatea; ikasketak: goi mailako titulazioa, erdi mailakoa zein LHII. Epea: uztailak 30.

■ LEHIAKETAK

• Emakumeen kontakizun IV lehiaketa, Bilboko Udalak antolatuta. Euskaraz zein gaztelerez, gai librekoa. Epea: Irailak 29.

Informazio gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

“Heriotzak sortzen dituen ondorioei eta beldurrari buruz erreflexionatzen dut”

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

- Erdialdean etxe handia salgai. Tel.: 79 42 13.
- Gesalibar auzoan baserria salgai. Berritua eta egoera onean. Tel.: 79 97 35. Arratsaldean eta gauaz.
- Soroluzen apartamentua salgai. Tel.: 79 50 71.
- Musakolan etxebizitza salgai. Tel.: 77 13 02.
- Etxebizitza salgai Makatzenan. Tel.: 79 75 31. Gauaz deitu.

3. Errentan emateko

- Zarautzen udan pisua alokatzen da. Alde-zaharrea kokatuta. Tel.: (945) 44 51 14.
- Peñiskolan pisua alokatzen da uztaila eta irailean. Tel.: 79 57 31.
- Udako hileetan Santa Polan (Alicante) bungalow-a eta Torreveijan apartamentua alokatzen dira. Hondartzatik eta herritik gertu. Tel.: 79 32 54 / 79 26 55.
- Alakanten lorategia daukan txaleta alokatzen da uztailan eta abuztuan. Interesatuak dei egin 79 40 01.
- Torreveijan 4 edo 6 lagunendako apartamentua alokatzen da. Igerilekua eta garbigailua ditu. Hondartzaren ondoan dago. Prezioa: 1.500 pta. egunean pertsona bakoitzeko. Tel.: 79 53 18.
- Laredon apartamentua alokatzen da abuztuaren azken astean eta irailean. Tel.: 79 31 47.

4. Errentan hartzeko

- Abuztuan pisua alokatuko nuke Arrasaten edo inguruetan. Tel.: (945) 44 52 24.
- Arrasaten pisu bila nabil. Txikia bada-hobe. Tel.: 77 02 81. Tito.
- Pisua behar dugu alokairuan. Tel.: 79 59 62.
- Ikasle gazteak pisu bila. Eskola inguruan bada-hobe. Tel.: 74 09 23. Mikel.
- Lau lagun pisu bila gabiltza. Tel.: 73 40 08.

5. Etxe konpartituak

- Lan finkoa duen mutilak logela bat

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

behar du Arrasaten edo inguruetan. Ekaina-uztailetik aurrera. Tel.: 908-57 64 83.

• Emakume heldua behar da igogailua duen pisua osatzeko. San Andresen. Dei egin arratsaldeko 8etatik 9etara 77 04 60 telefonora. Margari.

GARAJEAK

7. Saldu

- Garaje itxia salgai Udala plazan. Tel.: 79 97 03.
- Mugarren garajea salgai. Tel.: 79 44 07.
- Roneoko etxebizitzetako lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.
- Musakolan garajea salgai. Tel.: 77 13 02.

9. Errentan emateko

- Aldaigainen garajea alokatzen da. Tel.: 79 51 93.
- Mugarren garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 97 03.

• Roneoko etxeetan garajea alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

LOKALAK

12. Saldu

• Garajea salgai edo alokagai San Andresen. 75 m². Tel.: 79 13 52.

14. Errentan emateko

• Aretxabaletan funtzionamenduan dagoen ileapaindegi mixtoa alokairuan, solariumaz eta edertasun aretoaz. Ondo kokatuta, herri erdian. 60 m². Tel.: 77 12 70 / 79 94 39.

LANA

17. Eskaintzak

- Neska gertu aterteak garbitu eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 97 81.
- Neska euskaldunak denda baten lan egin edo umeak zainduko lituzke. Tel.: 79 74 76.
- Neska euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.:

79 58 22.

• Emakumea gertu orduka etxeak garbitzeko. Tel.: 77 06 74.

• Abuztuan pertsonak nagusiak zaintzeko gertu. Orduka edo egun osoz. Tel.: 79 45 87.

18. Eskaerak

- Emakume euskalduna behar da ume txikiak zaindu eta etxeko lanak egiteko, baita larunbatetan ere. Tel.: 79 27 27 (lan orduetan) edo 79 70 29.
- Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 45 73. Iluntzeko 8etatik aurrera.
- Neska bat behar da etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 22 92.
- Datorren kurtsoan ingeleseko klaseak emateko pertsona bat behar da. Tel.: 79 09 11.
- Esperientziadun jostuna behar da denda baten lan egiteko. Tel.: 909 27 40 95. Goizez dei egin.
- Esperientziadun neska behar da abuztuan ileapaindegi baten lan egiteko. Tel.: 79 22 59 / 77 00 56.

19. Bestelakoak

- Lanak euskaratu edota ordenadorez pasatzen dira. Tel.: 79 74 76.
- Euskaraz, gasteleraz eta ingeleseko itzulpenak egiten dira. Tel.: 79 79 12. Mila.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- Laugarren mailako Ekonomia ikasle batek klase partikularrak emango lituzke euskaraz zein erdaraz. Tel.: 79 84 42. Unai.
- Neska euskalduna klase partikularrak emateko prest. Tel.: 79 58 22.
- Enpresa zientzian lizentziatuak klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 79 33 23.
- Neska batek udan gitarra klaseak emango lituzke. Tel.: 79 20 24.
- Magisteritzan diplomadunak uztailean klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 79 35 24.
- OHO eta DBHko klase partikularrak emanten ditut. Esperientzia eta merke. Tel.: 79 47 35.

• Neska euskaldunak udan klase partikularrak emango lituzke. OHO, REM, edo BUP. Tel.: 79 51 19.

• Ingeleseko klase partikularrak ematen dira uztailean. Tel.: 79 79 12.

• Uztailean BBBko bigarren mailara arteko klase partikularrak emango nituzke. Tel.: 79 86 06. Itziar.

• Irakasle esperientziadunak klase partikularrak ematen ditu. Tel.: 79 74 76.

• Euskaraz zein erdaraz klase partikularrak ematen ditut. Tel.: 77 04 98.

• Esperientziadun neska batek klase partikularrak emango lituzke, euskaraz nahiz erdaraz. OHO, UBI. Tel.: 79 86 06.

• Biologiako laugarren mailako ikasleak klase partikularrak emateko gertu uztailean eta abuztuan. Tel.: 79 82 42.

• UBira arteko klase partikularrak ematen dira. Euskaraz eta erdaraz. Tel.: 79 46 75. Amaia.

• Euskal filologiako ikasleak uztailean, euskara, er1dara eta ingeleseko klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 29 20. Saioa.

• Injenerutza kimikoak matematika,

marrazketa, kimika eta fisikako klaseak emateko gertu. Tel.: 79 25 85.

• Esperientziadun neska klase partikularrak emateko gertu. Euskaraz nahiz erdaraz. Tel.: 79 28 61.

• Ingeleseko klase partikularrak emango nituzke uztailean eta abuztuan. Tel.: 77 02 74. Ane.

21. Eskaerak

• Soziologiako 1. mailako estatistikako klase partikularrak hartuko nituzke udan. Presazkoa da. Tel.: 79 38 48.

• Kontabilitate eta matematika finantzieroko klase partikularrak behar ditut. Tel.: 79 48 99.

MOTORRA

23. Saldu

• Adria 410 TD karabana salgai. Uda eta negurako guztiz jantzita dago. Tel.: 79 66 09.

• Ford Orion salgai. SS-AF. 87.000 km. Egoera onean. Tel.: 79 96 56. Gaueko 9etatik aurrera. Iban.

DENETARIK

26. Saldu

• Auto karabana salgai. 3,90 m. 5 lagunendako tokia. Merkea. Tel.: 79 91 21. Lanegunetan, gauez.

• Estreinatuta barik dagoen sofa-oheta salgai. 120 zm. Prezio ona. Tel.: 79 14 84.

• Arrazadun behor gazte bat salgai. Tel.: 79 46 75.

• IBM 425 SX ordenagailua prezio onean salgai. Tel.: 79 49 34.

• Erreformagatik solarium profesionala saltzen da. Egoera onean. Tel.: 79 72 56.

• Lur hiztegi enziklopedikoa salgai. Tel.: 79 78 26.

• Kanping karroa salgai. Prezioa: 50.000 pta. Tel.: 77 04 61.

• Ciclon Plus aspiragailua salduko nuke. Erreferentzia: AM-510- Fagor. Tel.: 79 50 96. Alberto.

• Super Nintendo bideo jokoa salgai. Hiru joko ditu eta oso merke salgai. Tel.: 79 79 53. Iñaki.

• Logela osoa salgai. Sofa eta koltoia opari. Tel.: 79 45 87.

31. Galdu

• Asteazken goizean Portaloiko farmazian aterkina aldatu zidaten. Iluna da eta kolorezko orritxoekin. Nik bere aterkina daukat. Tel.: 77 05 65.

• Kotxeko gasolina tapoia eta kotxeko giltza galdu ditut Meca gasolindegiri inguruan. Tel.: 79 80 25.

• Erdialdean belarritakoa galdu dut. Urrezkoa, bi perla berde ditu eta zortzi txuri. Balio sentimental du. Eskertuko da. Tel.: 79 56 42.

• Erlojua galdu nuen San Juanetan. Larunbatean izan zen. Tel.: 79 30 62.

32. Aurkitu

• Urrezko katea aurkitu nuen Muxibar parean. Izena eta data dauko. Tel.: 79 17 68. Gaueko 8etatik aurrera.

35. Kontaktuak

• Somorrostro (Muskiz) edo inguruan ikastera doan jende bila nabil. Tel.: 79 98 28.

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 79 55 82

OSTARKU

ORAIN DISKOTEKA OSOA DOHAN ALOKA DEZAKEZU!

- Ezkontza osteko jaiak
- Despedidak
- Ikasleen afari eta jaialdia

Animatu eta deitu! Tel.: 77 03 17

ZUMADIA ANTIGÜEDADES



Komodak, armairuak, kutxak, mahaia, erlojuak, ... • Errestaurazioak
Garibai Auzoa, 12 • OÑATI • Tel.: 716075
(Oñati eta Zubillaga Auzoen artean)



AMI OINETAKOAK


oinetako autozerbitzua

Olarte, 9 • ARRASATE • 77 14 65

■ Horoskopoa

- **Aries** Zer egingo duzu desiratzen zenuen eguna heltzean?
- **Taurus** Horrela jarraituz gero, laguna galduko duzu.
- **Gemini** Lortu nahi duzuna lortzen duzu betik.
- **Cancer** Hobe duzu abuztuan etxean geratzea.
- **Leo** Alaitasun pixka bat behar duzu aurrera jarraitzeko.
- **Virgo** Agindutakoa ez duzu inoiz betetzen.
- **Libra** Zapatak ere txiki geratuko zaizkizu horrela jaten baduzu.
- **Scorpio** Gozoki gutxiago jatea komeni zaie zure haginei.
- **Sagittarius** Orain ere gezurretan. Zer lortu nahi duzu?
- **Capricorn** Parrandazale amorratua zara baina azkenaldian triste zaude.
- **Aquarius** Zenbat aldiz esan behar zaizu kontuz ibiltzeko?
- **Piscis** Kreatibitatea landu beharko zenuke batez ere.

■ Gurutzegram



JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Jose Luis Etxebarria udaltzainburuari deitzen diote. 7. Usaina jario-tzen duena. 10. Dozenerdi. 11. (Ald.) Jendea diru truke garraiatzen duen kotxea. 12. Iskanbila. 14. Irrati-telebistan berriak ahoz ematen dituen. 15. (Ald.) Turkiako mendirik altuena, Bibliaren esanetan Noeren kutxa bertan lehorreratu zen. 17. Ozpina-ren antzeko zaporea duena. 18. Txakur.

Bertikalak 1. Puska txikia. 2. Itun Zaharreko lehen profeta txikia. 3. (Ald.) Italian jaio dena. 4. (Ald.) Iridioa. 5. Umaldi bakoitzean ume bakarra duen egaztuna. 6. Emagaldua. 8. Zabalik irunarazten den larru-azaleko ultzera, bertatik hainbat gai gorputzetik kanpora daitezten. 9. Aintzinako Greziako erdijainkoa; akerraren adartxo, hanka eta buztanez irudikatu ohi zen. 13. (Ald.) Egun jakina. 16. Sexu maskulinoa duen animalia.

Horizontalak: 1. Portu. 7. Usainsu. 10. Sei. 11. (Ald.) Taxi. 12. Kalapita. 14. Esatari. 15. (Ald.) Arrat. 17. Azido. 18. Or.
Bertikalak: 1. Pusketa. 2. Oseas. 3. (Ald.) Italian. 4. (Ald.) Ir. 5. Iniparo. 6. Puta. 8. Txira. 9. Saitro. 13. (Ald.) Data. 16. Ar.

**ARAOTZ
MERENDEROA**

Zabaldu berria!
Inaugurazioa, gaur ostirala 7etan.
Etor zaitez, gonbidatuta zaude!
 Araotz auzoa, 2 (Elizaren ondoan) • OÑATI Tel.: 78 35 26



HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE

**LOGOPEDIA
ZENTRUA**
ARRASATE

MIKEL LASA, S.A.

aseguru artekaritza

ASEGURU OROKORREN AGENTZIA

Zure familiaren segurtasuna, aurpegia erakusten ez dizun norbaiten esku utziko zenuke?

EZ ERABAKI ZURE ETORKIZUNA TELEFONOZ

BANKINER

AGENTEA

FINANTZA PRODUKTUAK

Inbertsio fondoak, Altxor Letrak, Epe jakinerako ezarpenak, Bonoak, Obligazioak eta abar.

HIPOTEKA MAILEGUAK

Maalako Errabala, 33 behea • 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
 Tel.: (943) 79 69 00 Faxe: (943) 77 10 74

■ Lupe Navarro

ITURRIPE KIROLDEGIKO ATEZAINA



Puerikultura ikasi zuen Lupek eta, akaso horregatik, gazteriarekin harremana duen lana du aspalditik. Izan ere, Iturripeko kiroldegian lanean daramatzen azken hamabi urtetan ume eta gazte mordoak ezagutzeko aukera izango zuen Lupek.

1. Zein da zure horoskopoa? Tauro.
2. Sinestuna zara? Jainkoan sinisten dut.
3. Animalia bihurtzekotan? Izurde.
4. Zure akats bat/gauza on bat? Burugogorra naiz/ Jendea maite dut.
5. Zerk lotsarazten zaitu? Munduan dagoen goseak.
6. Amets bat? Bakea.
7. Zer kenduko zenuke mundutik? Gosea eta gerrateak.
8. Gertakizun historiko bat? Nire seme-alaben jaiotza.
9. Nor miresten duzu? Martin Luther King.
10. Zeri diozu beldurra? Ezerri.
11. Zertaz damutzen zara? Ezertaz.
12. Negar egin duzun azken aldia? Aspaldian ez dut negarrik egin.
13. Zer falta zaiu Arrasateri? Hondartza
14. Eta zuri? Ezer ez.
15. Lanbidez aldatzekotan? Haur psikologoa.
16. Arrasateko gustoko toki bat? Udala.
17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Hirugarren seme bat edukitzea.
18. Zein egunkari irakurtzen duzu? *El Diario Vasco*.
19. Gustoko janari bat? Edozein arrain.
20. Liburu on bat? *Almas borrascosas*.
21. Filmerik onena/txarrena? *Secretos y mentiras/ Batman*.
22. Musika talderik onena/txarrena? 60. hamarkadako musika / Heavy-a.
23. Telebistako programarik onena/txarrena? *Informe semanal / Lo que necesitas es amor*.
24. Egin dizuten oparirik politena? Lore sorta bat.
25. Denbora libre zertan pasatzen duzu? Familiarekin pasatzen dut.
26. Oporretarako toki bat? Donostia.
27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Hautsa kentzea.
28. Gomendio bat? Urkoa maitatzea.
29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Bai, nire seme-alabengatik.
30. 200 milioi irabaziz gero? Familiarren artean banatu eta eta bidaiatu.



**Parques
y Jardines**

**Parke eta lorategien
sorkuntza.**

**Lorazaintzako
mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza
hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. T1noa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Astelehena honetan iritsiko da Abialdian 97 martxa

Arrasatera. Argazkia, berriz, orain 20 urteko Askatasunaren Ibilaldikoa da, Araba zutabea Bizkaia utzi eta Gipuzkoan sartu zenekoa. Argazkiko Araba zutabe hori izan zen orduan Arrasatera iritsi zena, jende askoren artean.


Ordutik 20 urte pasatu dira, eta hainbat gauza aldatu den arren, ziur jende askoren artean martxa hark zabaldu eta sortu zuen itxaropena ez dela oraindik gauzatu, ametsa oraindik hor dagoela.

Urtea: 1977

Argazkia: Beronika Garai

Informazioa: Beronika Garai



OPEL 



TAKOLO AUTOAK

Araba etorbidea, 3
(ESKATU pabilioia)
ARRASATE
Tel.: 79 05 86

Auto-Suecia
VOLVO

Volvo Automobilen Gipuzkoarako Kontzesionario Ofiziala

Aldi//bi

Segurtasuna ez da bakarrik
diruarekin ordaintzen.

Zatoz eta ezagutu gaitzazu!



Auto-Suecia

Zigorrola kalea,1 • ARRASATE • Tel: 71 20 02 Faxa: 79 65 65

Scenic Mégane

Aukeren
boom-a

MECA Pribilegioak
**Bezera da
aurrenekoa**



MECA

San Andres auzoa • Tel.: 79 50 12 / 79 59 99 • ARRASATE